

ERRONKA SOZIALAK

2019ko hauteskundeei begira

Espainiako Jesusen Lagundiko gizarte-apostolutzak dakartzan
hausnarketak eta proposamenak



Nor gara?

Dokumentu honetan, Espainiako Jesusen Lagundiko gizarte-apostolutzak egindako hausnarketak eskaintzen ditu. Apostolutza fedearen zerbitzura eta gizarte- eta ingurumen-justizia sustatzera bideratutako zenbait obra, erakunde eta pertsonak osatzen dute. Sektoreak lehenetasunezko hiru arlo ditu: immigrazioa, haurrak eta gazteak, eta garapenerako nazioarteko lankidetzak.

Gaur egun, sektore soziala lurralde nazional osoan 50 egoitza baino gehiago dituzten 20 erakundek baino gehiagok osatzen dute. 2.500 pertsonaz osatutako talde batek eusten dio misioari; pertsona horietatik % 80 baino gehiago boluntarioak dira, tartean jesuita talde bat. Gure ekintzaz baliatzen diren pertsona eta familiak milioi bat baino gehiago dira, eta Espainian eta beste kontinente batzuetan kokatuta daude.

Gure esperientzia zehatzagatik aukeratu ditugu gaiak, eta beste batzuk baztertu. Eguneroko konpromisoan lantzen ditugun gaiak dira. Haietatik abiatuta, gure hausnarketak eta proposamenak partekatu nahi ditugu, eztabaida publikoa eta beste batzuekin partekatutako hausnarketa sustatzeko. Ziur gaude guztien ongia bilatzen duten ahots desberdinen bidez soilik eraiki daitekeela demokrazia osasuntsu bat.

Aurkibidea

I.- 2019ko hauteskundeei begira neurri sozialetan pentsatzea	2
II.- Ingurumen-krisia	4
III.- Nazioarteko elkartasunarekiko konpromisoa	5
IV.- Gizarte inklusiboa eta askotarikoa.....	6
V.- Haurren eta nerabeen babes eraginkorra	7
VI.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna.....	7
VII.- Eredu fiskal jasangarria eta nahikoa	8
VIII.- Informazio gehiago nahi izanez gero	10

I.- Aurkezpena

Hauteskunde guztiak dira garrantzitsuak: haiek dira gure demokraziaren ardatz, eta herritarrei boterea erabiltzeko aukera ematen diete. 2019an, Estatuaren antolaketa politikoko maila guztietan izango dira hauteskundeak: tokikoak, autonomikoak, Estatukoak eta Europakoak.

Hauteskunde hauei begira badago kezkabiderik, eta asko, gainera, baina onartu beharra dugu Europako demokraziek indar handia dutela eta botere-banaketa ezinbesteko kontrapisua dela konstituzio-esparruak errespetatuko direla ziurtatzeko. Ezin gara inuzenteak izan (erronka garrantzitsuei egin behar diegu aurre), baina ez gaitu izu-ikarak hartu behar ere. Seguruenik eguzkia aterako da hauteskundeen hurrengo egunean eta lanean jarraitu beharko dugu «justizia egiten duen fedea» mugituta.

Hona hemen hauteskunde hauen garrantzia eta irismena hobeto ulertzen lagun diezaguketen gure garaiko alderdi batzuk.

Europako proiektua —Europar Batasuna osatzen duen eskualde-mailako integrazio-prozesua— garairik txarreanean dago. Berri txarra da Erresuma Batua Europar Batasunetik irtetea (brexit-a). Erresuma Batua oso aspaldiko demokrazia bat da, eta potentzia ekonomiko bat. Hura EBtik irteteak, zailtasun zehatzak sortzeaz gain, oso mezu negatibo bat ere badakar berekin, mesfidantza erakusten baitu eta proiektu nazional autonomo bat lehenesten, erantzukizun partekatuko eredu baten gainetik. Brexit-az gain, EBk orain arte izan ez zituen tentsioak bizi ditu Poloniarekin eta Hungariarekin, besteak beste, eta tentsio horiek zalantzan jartzen dute demokrazia liberaleko eredua, herritarrenak baino lehenagokoak (eta goragokoak) izango liratekeen balio nazional batzuk sustatzen baititu. Italian ere tentsio larria dago EBekin, eta elkartasuneko oinarritzko printzipioa urratu da.

Gure garaian ezinegon gero eta handiagoa dela erakusten duten bi indar-ildo (M-15, hiritar haserretuak, txaleko horiak, *Occupy*...) **desberdintasun ekonomikoa** eta **partaidetza politiko handiagoa** dira. **Desberdintasuna** hainbat erataria agertzen da: gazteen artean, enplegua prekarizatu egin da; helduen artean, berrogeita hamar urtetik aurrera ia ezinezkoa da berriz ere laneratzea; pentsiodunen artean, eskasia da nagusi. Oro har, gure gizarteak gero eta dualagoak dira: gutxi batzuek ondo ordaindutako enpleguak lortzen dituzte, baina gehienek behin-behineko enpleguak dituzte, edo oso diru-sarrera mugatuak.

Demokrazia formalak desengainua eragin du; izan ere, alderdi politikoak talde itxi eta profesionalizatuak bihurtu dira, eta behar sozialetatik urrunduz doaz, mantentzea eta botere-kuotak bermatzea baino ez baitute helburu. Demokraziak behar-beharrezkoak ditu erdiko erakunde horiek egoki funtziona dezan. Halakorik izan ezean, ez dago ordezkariarik, eta botere publikoak ezin du erantzun egokirik eman. Zuzenean parte hartzeko moduek ez lukete egon behar ordezkartza-sistemaren kontra, baizik eta elkarren osagarri izan liteke, eta elkarrentzat bizkorgarri izan ekintza publikoa hobetzeko.

Azkenik, hauteskunde hauek **informazioa eskala handian bidaltzearen** erronka biziko dute sare sozialen bidez. Inguruko herrialdeetan antzeko prozesuak izan direnean, garbi geratu da baliabide horiek eragin handia dutela, toki guztietara iristeko ahalmena dutela, ezinezkoa dela nahita faltsuak diren albisteak noraino irits daitezkeen identifikatzea, eta zaila dela mezu horien aurka egitea. Badakigu zenbait talde antolatutako informazio faltsua zabaltzen dutela. Desinformazio hori dago populismoen oinarrian. Gaur egungo sistema politikoa arbuiztzen duten mugimendu politikoak dira populismoak, informazioa desitxuratuta statu quo

desiragarria mehatxa lezakeen guztiaren beldur direnak. Albisteak hain bizkor zabaltzea erronka berria da gure gizarteentzat, eta ebidentzia eta sentimenduak bereizteko gai den eztabaida ordenatu bat mehatxatzen ari da.

Hauteskunde ugari izango dira 2019an. Hauteskunde horietako bakoitzaren alderdi zehatzez gain, adi aztertu behar genituzke gure bizitza politikoa markatzen ari diren joera sakonagoak: *proiektu europarrarekiko desengainua*, elkartasun-falta justifikatzen duena; *desberdintasun ekonomikoa*, gure gizarteetan oso errotuta dagoen injustizia modu gisa; *demokrazia formalarekiko desengainua*, alderdi politikoen ordezkaritza zurruna delako, baina, zalantzan jartzean, agerian geratzen delako beste aukera batzuk ahulak direla; eta *sare sozialen eta informazio-fluxu masiboen erronka berritzailea*, aurreiritzia eta polarizazioa elikatzen dituen.

Boto informatua emateko eskubidea erabili nahi badugu, apur bat gehiago ahalegindu beharko dugu.

II.- Ingurumen-krisia

Planetak ingurumen-krisi larria bizi du, hein handi batean giza jardueragatik. Oro har naturari eragiten dio eta gure muga nazionalak gainditzen ditu. Gizateria gisa, ondasun komun naturalak kudeatu eta babestu behar ditugu. Politikak azter ditzake gai horiek, politika arduratzen baita guztien ongiatz.

Nahiz eta arazoak nazioartekoak izan, nazioan gauza asko egin ditzakegu gure herrialdearen bizitza babesteko. Gainera, maila horretan hartu behar ditugu geure gain dagozkigun erantzukizun globalak.

Hauei buruzko proposamenak¹:

1. **Aldaketa klimatikoa.** Mende honen amaieran planetako tenperatura ezin da izan 1,5 °C handiagoa industriaurreko garaietakoarekin konparatuta. Atmosferara berotegi-efektuko gas gutxiago isurtzeko, hauek egin behar ditugu:
 - Iturri berriztagarrietatik sortu behar dugu energia.
 - Karbonoaren merkatuak behar bezala tasatu behar ditu isuriak.
 - Eraginkortasun energetikoa handitu behar dugu.
 - Garraio publikoa eta partekatua erabili behar dugu.
2. **Kutsadura eta hondakinak,** heriotza goiztiarren eragile. Haien eragina txikitzeko, hauek egin behar dira:
 - Errekuntzako autoen ordez, auto elektrikoak edo hidrogenozkoak erabili.
 - Autoa gutxiago erabili eta abiadura murriztu hirietan.
 - Erabilera bakarreko plastikozko ontziak debekatu eta pixkanaka plastikozko ontziak eta bilgarriak desagerrarazi (bereziki elikagaiei dagokienez).
3. **Biodibertsitatea.** Gure ekosistemetako asko arriskuan daude. Dinamika hori geldiezin da, baina haren abiadura txiki dezakegu hauek eginez gero:
 - 2025erako, pestiziden erabilera erdira murriztu.
 - Gune babestuak sortu eta haien arteko konektagarritasuna ahalbidetu.
 - Espezie inbaditzaileen aurka borrokatu, ugal ez daitezen.
 - Basoak berritu eta kudeatu, gero eta ohikoagoak diren baso-sute handiak saihesteko.
 - Landa-eremuko herritarrak eta familia-nekazaritza finka daitezen bultzatu.
 - Nekazaritza ekologikoa babestu.
4. **Ur geza.** Gero eta ur geza gutxiago dago etxerako, nekazaritzarako eta industriarako, baina beharrek gora egiten dute. Nekez ebatz daiteke ekuazio hori. Beharrezkoa da hauek egitea:
 - Akuiferoak kudeatu eta legez kanpoko ustiaketa jazarri.
 - Lurralde osoan uren tratamendua osatu.
 - Ura garraiatzeko sareak berritu, galerak minimizatzeko.
 - Gertatuko diren lehorraldi eta uholdeetarako prest egon.

¹ [«Agua y energía: dos pilares básicos de la Casa Común»](#), (Espainiako Apezpiku Konferentzia, 2018ko irailaren 1a).

5. **Kostaldeak eta itsas ingurunea:**

- Kostaldeei buruzko legea betetzen dela ziurtatu.
- Arrantza-kuotak errespetatzen direla bermatu, espezieak leheneratzeko.
- Debekatutako arrantza-tresnen erabilera eta espezie babestuen arrantza zigortu.

6. **Hezkuntza**, aldaketa kultural bat lortzeko, ingurumena errespetatzen duten bizimodu osasungarriak ezar daitezten:

- Ingurumen-hezkuntzako plan bat prestatu, nahitaezkoa baita maila guztietan; plan horrek gure pentsamoldea aldatzen lagunduko luke gazteak trebatzen hasten garenetik bukatzen dugun arte.
- Sentsibilizazio-kanpainak sustatu.
- Higiene- eta garbiketa-produktu ekologikoak erabili, baita beste baliabide jasangarri eta berriztagarri batzuk ere (papera, elektrizitatea, ura, berokuntza, aire girotua...) eskolako jantokietan eta elikagaiak kontsumitzeko toki publikoetan.

III.- Nazioarteko elkartasunarekiko konpromisoa

Guztiok kontziente izan behar dugu pobrezia eta gizarte-bazterkeria gainditzea gure garaiko erronka handi bat dela. Horretarako nazioarteko esparrua garapen jasangarriko helburuak (GJH) dira. GJH helburuek hainbat arlori buruzko xedeak biltzen dituzte (hain zuzen ere, ekologia, oinarritzko gizarte-zerbitzuak, genero-berdintasuna, fiskalitatea, giza eskubideak eta bakea), eta herrialde guztiek xede horiek guztiak bete behar dituzte 2030erako. Duela gutxi migrazioari eta babesari buruz sinatu diren munduko itunek 2030eko Agenda osatzen dute, gero eta ohikoagoa den giza mugikortasuna (nola nahitaezkoa hala borondatezkoa) gertatzeko arrazoiak, haren ondorioak eta hura kudeatzeko moduak ere sartuta.

Espainiak ere sartu behar ditu konpromiso horiek bere barne-politiketan. Gure garapen-maila ikusita, gainerako herrialdeekin batera ere lagundu behar dugu GJH helburuak herrialde txirotuenetan betetzen. Hala ere, Espainiak nazioarteko lankidetzaren politikarako duen aurrekontua % 70 murriztu da azken hamarkadan, eta are murrizketa handiagoak izan dira laguntza humanitarioan, hezkuntza-lankidetzan eta herritartasun globalerako hezkuntzan. Horrek eragin handia du milaka pertsonaren bizimoduan eta txikitu egiten ditu bizimodu duin bat izateko aukerak.

Garapenerako nazioarteko lankidetzako estatu-politika bat behar dugu, dinamika alderdikoan menpe egongo ez dena eta kanpo-politikaren buru izango dena.

Proposamenak:

7. **Kanpo-politika solidario baten alde egitea.** Adostasuna lortu behar da *garapenerako nazioarteko lankidetzako estatu-politika* leiala izan dadin pobrezia desagerrarazteko eta garapen jasangarria sustatzeko bere asmoekin, sendoa esparru autonomikoan eta tokiko esparruan, eta Espainiako gizarte zibilari eta nazioarteko lankidetzaren duten herrialdeei partaidetza aktiboa izateko aukera eskain diezaien.
8. **Garapenerako laguntzaren errenta nazionalaren % 0,5 bideratzea**, garapen jasangarriko helburuetan ezarritako % 0,7ra iristeko erdiko urrats gisa. Laguntza humanitariora (larrialdiak) garapenerako laguntzaren % 10 bideratzea.
9. **Migrazioari eta babesari buruz sinatu diren itun orokorreari erantzuteko neurriak garatzea**, migrazioak modu ordenatuan, legez eta seguru kudeatu ahal izateko, herrialdeen arteko

erantzukizun partekatuko printzipioaren pean. Itunek esparru egokia eskaintzen dute nazioarteko migrazio-fluxuen ondorio positiboak hedatzeko, nahitaezko migrazioen arrazoiak aztertzeko, eta giza eskubideak errespetatuko direla eta nazioarteko babesa behar duten pertsonen benetako babesa emango zaiela bermatzeko. Politikariek aukera gisa hitz egin behar dute migrazioaz, eta ez mehatxu gisa.

10. **Garapen jasangarrirako eta herritartasun orokorrerako hezkuntza sustatzea;** horretarako, garapenerako laguntzaren % 10 bideratzea estrategia horretara. Nazioarteko lankidetzaren politikaren funtsezko dimentsio bat da, eta espainiarren artean komunitate orokor bateko kide garelako, beste edozein eskubideren gainetik giza duintasunarekiko konpromisoa dugula eta hospitalitatearen kultura bultzatu behar dela sustatu nahi du.

IV.- Gizarte inklusioa eta askotarikoa

Azken hamarkadetako migrazioaren ondorioz, Espainia askotarikoa da. Seriotasunez ikusi behar genduke aniztasunaren kudeaketa, aukera handi gisa. Gizarteratzea denon erantzukizuna da, migratzaileena eta harrerako gizartearena. Duela gutxi, Europako Batzordeak Espainiari ohartarazi dio desberdintasun handiak daudela (ikus V. atala) batez ere migratzaileen artean. Gainera, krisialdiarekin batera, gizarteratze-politikak ere desagertu egin ziren, eta herritarrei eta gizarteratzeari buruzko azken plan estrategikoa 2011-2014 aldikoa da.

Horretaz gain, Espainiak Marokorekin duen mugatik etorritako pertsona ugari jasotzen ditu oraindik ere. 2018an, ia 65.000 pertsona iritsi ziren hegoaldeko mugatik; haietako asko Europako beste herrialde batzuetarantz abiatzen dira. Hegoaldeko mugatik iristen direnen kopurua ez da kezagarria, baina bai zeinen gogorra den Mediterraneoaren mendebaldeko ibilbidea eta bertatik datozenek zer arriskuri aurre egin behar dieten. Hori, hein batean, beldurra eta gure kontinente oparoaren berekoikeria ardatz dituen politika bati zor zaio, beste batzuei sekulako diru kopuruak emateko gai baita inork egin nahi ez lukeena egin dezaten.

Mediterraneotik eta beste bide batzuetatik iristen ziren pertsonetako batzuek babes-behar bereziak dituzte. Nahitaezko migrazioak areagotu egin dira munduan, eta errefuxiatuen kopurua handitzen dute. Espainiak ahalegin berezia egin du azken urteotan asilo-eskatzaileak hartzeko sistema handitzeko eta hobetzeko, baina emaitza partzialak izan ditu, eta, zenbait alderdiri dagokienez, eskasak. Eskaintzen duen ereduak arrakasta handiagoa izan lezake eskualdeko eta tokiko babesa izango balu eta beste eredu batzuekin konbinatuko balitz; esaterako, babes komunitarioarekin.

Jesusen Lagundiak era askotara laguntzen du migratzaileak eta errefuxiatuak hartzen, hospitalitatearen kultura sustatzen du, eta joan-etorriak eragiten dituzten arrazoiak aztertzen ditu.

Proposamenak:

11. **Gizarteratzean inbertitzea eta desberdintasunak murriztea.** Gizarteratzeko eta gizarte-kohesioko plan nazional bat ezartzea eta gizarteratze-funts bat eskaintzea. Ikuspegi orokor batetik baino ezin izango da benetan lortu gizarteratzea; horretarako, beharrezkoa da gobernu zentralak, eskualdeko eta tokiko administrazioek eta herritar guztiek parte hartzea.
12. **Gure mugetan eta atzerriarrak barneratzeko zentroetan pertsonen bizitza eta eskubideak babestea.** Mediterraneoko erreskate-lanekin jarraitzea, hegoaldeko mugan migratzaileak berehala itzultzeko prozesuak bertan behera uztea eta pertsonen

trafikatzen duten eta haiek esplotatzen dituzten sareen aurka borrokatzea. Herrialdean sartzeko bide seguru eta legezko gehiago eskaintzea.

13. **Errefuxiatuak Europar Batasuneko herrialdeetan banatzea, harrera-kuoten sistema baten arabera**, giza baliabide eta baliabide finantzario nahikoak eskainiz.

V.- Haurren eta nerabeen babes eraginkorra

Une honetan, adingabeak hartzeko Espainiako politikak arriskuan jar ditzakete haurren eskubideak. Bakarrik dauden adingabe atzerritarrak iristen ari dira, eta horrek eragin handia du gure herrialdeko haur eta nerabeak babesteko eskubidearen agendan. Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioaren datuen arabera, 2018. urtearen amaieran, 13.400 gazte baino gehiago iritsi ziren gure herrialdera heldurik gabe eta legez kontrako administrazio-egoeran.

Gazte horiek oso modu irregularrean banatu dira autonomia-erkidegoetan, baina gehienak Andaluziara (5.000 gazte baino gehiago), Kataluniara eta Melillara (1.000na inguru) eta Euskal Herrira (mila baino zertxobait gutxiago) eraman dira. Babesik gabe dauden adingabeei eskaintzen zaizkien arreta eta babesa oso desberdina da autonomia-erkidego batzuetatik besteetara, nahiz eta 26/2015 Legeak, haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzekoak, lurralde nazional osoan babes-estandar uniforme batzuk ezartzera behartzen duen. Horretara bideratutako aurrekontuak eskaintako babes-maila adierazten du: ez da bakarra, baina bai garrantzitsuenetako bat. Bada, aurrekontuen arloan, %100etik gorako aldeak daude erkidegoen artean, bai zerbitzuei dagokienez, bai egoitzetan hartzeko prozedurari dagokionez.

Inola ere ezin dugu onartu *bigarren kategoriako* haurrak eta gazteak izatea. Premiazkoa da babesa arrazionalizatzea adingabeen eskubide guztiak bermatzeko, haien nazionalitatea edozein dela ere.

Gure herrialdera bakarrik iristen diren adingabeen babesa ezin da izan dagokion autonomia-erkidegoaren erantzukizun eksklusiboa, ausaz iristen baitira batera edo bestera; oinarrian, geografiaren arabera dago hori. Ia adingabe guztiak erkidego gutxi batzuetan biltzen dira, eta Ceuta eta Melillako hiri autonomoetan; ondorioz, arreta eskasagoa da, eta haien eskubideak murriztu egiten dira.

Proposamenak:

14. **Haurrak eta nerabeak artatzera eta babestera bideratutako aurrekontuak** diseinatzea eta gauzatzea, **adingabeei arreta hobea emateko asmoz, eta ez irizpide politikoak eta lurralde-irizpideak oinarritzat hartuta.**
15. **Estatuak baterako erantzuna ematea iristen diren nerabe migratzaileei.** Erantzun hori bi modutara eman daiteke: erkidegoek itun egonkor bat eginda, gobernu zentralaren babesarekin; edo, bestela, haur eta nerabe horien beharrei aurre egiteko gaitasuna eta aurrekontua dituen erakunde bakar batek eskumenak bere gain hartuta.

VI.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna

Batzuetan, «berdintasunaren irudipena» izenekoak (hau da, legearen aurrean gizonen eta emakumeen arteko berdintasun formalak eguneroko bizitzan benetako aukera-berdintasuna dakarrela pentsatzea) eragotzi egiten digu gure eguneroko bizitzan izaten dituzten desberdinak identifikatzea. Hainbat eratarik ikusten da desberdintasun hori. Haietako batzuk gizonen eta emakumeen artean dagoen soldata-arrakalan ikus daitezke (emakumeek gizonen baino % 22,9

gutxiago kobratzen dute), edo zainketa-lanei eskaintzen dizkieten orduetan (batez beste, emakumeek egunean gizonek baino 2,5 ordu gehiago eskaintzen dizkiete adingabeen, adinekoen edo mendekoen arretari, etxeko lanei, etab.), EINeko datuen arabera. Zalantzarik gabe, bereizkeria horren adierazpenik larriena gizonek emakumezko bikotekideak hiltzea da (2018an, 47 emakume hil dira Espainian bikotekideen eskuetan²; gizarte-erakundeek emandako datuen arabera, berriz, 98 emakume³).

Azken urteotan martxoaren 8aren inguruan egin diren mobilizazio masiboek benetako berdintasunaren aldeko politikak sustatzera bultzatzen dituzte herritarrak eta gobernuak.

Proposamenak:

16. **Genero-indarkeriaren aurkako Europako Kontseiluaren hitzarmena esparru politiko gisa hartzea eta Espainian betearaztea** (Istanbulgo hitzarmena esaten zaio). Tresna horren arabera, emakumeen aurkako indarkeriak giza eskubideak urratzen ditu, eta bereizkeria eragiten. Gainera, prebentzio-, babes- eta zigor-neurriak ere biltzen dira, baita genero-indarkeriaren aurkako politika integratuak ere.
17. **Emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala txikitzea eta prekarizatuen eta feminizatuen dauden lan-sektoreetako baldintzak hobetzea**; esaterako, zainketen sektoreetakoak eta, bereziki, etxeko langileen sektoreetakoak.
18. **Hezkuntza-curriculumak hezkidetzaren eta genero-berdintasunaren ikuspegitik berrikustea**, eta emakumeek diziplina desberdinei egiten dizkieten ekarpenak barneratzeko, nesken eta mutilen arteko berdintasuna sustatzeko eta haien gaitasun guztien erabateko garapena bultzatzeko.

Gure ustez, beharrezkoa da era guztietako trabak eta desberdintasunak (nola agerikoak hala sinbolikoak) desagertzera bideratutako politika publikoak izatea eta politika horien bidez gizarte berdintsuago bat eraikitzea; gizarte horretan, neska edo emakumea izateak ezin du izan bereizkeriarako arrazoa eta pertsona guztiek askatasun eta duintasun bera izan behar dugu.

VII.- Eredu fiskal jasangarria eta nahikoa

Espainia krisialditik ateratzearekin batera, desberdintasuna nabarmen areagotu da. Errentari dagokionez, Espainia desberdintasun handiena duten EBko hirugarren herrialdea da, Errumaniaren eta Bulgariaren atzetik. Desberdintasunari aurre egiteko, era guztietako neurriak behar dira; besteak beste, fiskalitatearen bidetik diru-sarrera publikoak hobetzearekin eta zerga jasangarri eta nahikoak ordainaraztearekin erlazionatutakoak daude. Neurri horietan jarriko dugu arreta.

Espainia Europaren azken tokian dago: BPGd-ren % 38 du diru-sarrera publikoei dagokienez (euroguneko batezbestekoa % 45 ingurukoa da).

Eredu fiskal jasangarriagoa eta nahikoa izateak diru-bilketa hobetzen lagunduko luke. Horri esker, Estatuaren birbanatzeko gaitasuna indartuko litzateke eta, gainera, azken hamarkadan egindako murrizketak itzuli egingo lirateke, eta gure ongizatearen estatuko politika publikoak hobetu, gastuaren bidetik, inbertsioaren bidetik edo zuzenean transferentzien bidez.

² Presidentetzako Ministerioa, gorteekiko harremanak eta berdintasuna: <http://www.violenciagenero.igualdad.mpr.gob.es/>

³ Cfr. <https://feminicidio.net/>

Duela gutxi Egoitza Santuak esan duen bezala⁴:

Estatuen zerga-sistemak beti ez dirudi bidezkoa; horri dagokionez, esan behar da injustizia horrek maiz sektore ekonomiko ahulenak kaltetzen dituela, eta ekipatuen dauden eta eragin handiena izateko gai diren sektoreei mesede egiten, baita zerga berberak arautzen dituzten sistema arautzaileetan ere. Hain zuzen ere, zergek, bidezkoak direnean, aberastasuna berdin banatzeko balio dute, ez bakarrik diru-laguntza egokiak behar dituztenentzat, baizik eta baita benetako ekonomiari inbertitzen eta handitzen laguntzeko ere.

Proposamenak:

19. **Zerga-onuren gaur egungo sistema berrikustea;** horrek diru-sarrerak galtzea dakar, batzuetan arrazoirik gabe, itzulkin sozial edo ekonomikorik gabe eta izaera atzeragarriarekin.
20. **Sozietateen gaineko zerga berrikustea.** Zerga horri dagokion diru-bilketa erdira murriztu da azken hamarkadan eta krisialdiaren ondoren lehengo diru-bilketara itzuli ez den zerga bakarra da. Horren arrazoi nagusia da behera egin duela zerga-tasak eta onura fiskalak izan direla.
21. **Kapitalaren errentei eta lanaren errentei dagozkien zergen artean dagoen bidegabekeria desagerraraztea.** Lehenengoen, deslokalizazioaren etengabeko mehatxuarekin, beren irizpideak ezartzea lortzen dute. Abantaila hori desagerrarazteko, akordio garbiak behar dira, baita nazioarteko koordinazioa eta adostasuna ere.
22. **Iruzuraren eta zergak ez ordaintzearen aurka borrokatzea,** Espainian milioika diru galtzea eragiten baitute. Iruzuraren aurkako borrokan Europako batezbestekoetara hurbiltzeko lan eraginkorragoa eginez gero, zergen diru-bilketa hobetzeaz gain, herritarrek zerga-bilketan zuzentasun eta justizia handiagoa dagoela hautemango lukete.
23. **Ingurumen-fiskalitateko edo fiskalitate ekologikoko neurriak garatzea,** garapen jasagarriko helburuekin gaur egun dagoen konpromiso-egoerak eskaintzen duen nahitaezko trantsizioa ahalbidetzeko.

Akordio zabal bat behar da, Espainiako zerga-eredua egonkortu ahal izateko, bidezkoagoa eta sendoagoa izan dadin eta Europako ekonomia gisa izan behar lukeen mailan koka dezan. Horri esker, kontu publikoak saneatuko lirateke, baina, bereziki, pobrezia eta desberdintasuna desagerrarazteko behar diren neurri guztiak aplikatuko.

VIII.- Informazio gehiago nahi izanez gero

«Para una sociedad más justa. Propuestas políticas ante las elecciones legislativas de 2019», Caritas, 2019ko martxoa

«Otra cooperación es urgente. Propuestas para las elecciones generales del 28 de abril», Garapenerako erakundeen koordinakundea, Espainia, 2019ko martxoa

«Fiscalidad justa, una lucha global», Xavier Casanovas, Cristianisme i Justícia, 205. koaderno, 2017ko iraila

⁴ «[Consideraciones para un discernimiento ético sobre algunos aspectos del actual sistema económico y financiero Oeconomicae et pecuniariae quaestiones](#)», Egoitza Santuaren agiria, 2018/05/17koa

Espainiako Jesusen Lagundiko Gizarte Sektoraren erakundeak ondorengoak dira:

- ALBOAN
- Amoverse
- Arrels Sant Ignasi
- Atalaya Intercultural
- Fundació Carles Blanch–Centre Sant Jaume
- Casa San Ignacio
- Centro Lasa
- Asociación Claver-SJM
- Cristianisme i justícia
- Delegación diocesana de migraciones de Tánger–Centro Nador
- Fundación Ellacuria
- Entreculturas
- Hogar San José
- Instituto Universitario de Migraciones–U.P. Comillas
- Jesuiten etxea
- Asociación para la Libertad
- Loiolaetxea
- Migra Studium
- Centro Montalvo
- Nazaret ¾ Piso Claver.
- Red Íncola
- Fundación La Salut Alta
- Fundación San Juan del Castillo–Centro Pueblos Unidos
- Seminario de Investigación por la Paz
- Servicio Jesuita a Migrantes
- Servicio Jesuita a Migrantes–Valencia
- Fundació La Vinya

Informazio gehiago hemen: <https://socialjesuitas.es/>